

2025-2026 BELDURREZKO MIKROIPUIN LEHIAKETAKO LANAK

LEHENENGO SARIAK

ISPILUAREN DEIA

Irene Ballano (CBU 3)

Miren bakarrik bizi zen, edo hori uste zuen. Gauero, bere islak ispiluan keinu bat gehiago egiten zuela iruditzen zitzaion.

Gau batean, ispilua ukitu zuen: haragi epela bezala sentitu zuen. Bat-batean, islak eskumuturretatik heldu eta barrura tiratu zuen. Mirenek oihu egin zuen, - Aaaaa! baina soinurik ez zen atera.

Orain, Mirenek bere logela barrutik ikusten du, kristalaren ostean harrapatuta. Kanpoan, islak irribarre egiten dio, bere jantziak jantzi eta ohean etzan den bitartean. Orduan, ispilua hormaren kontra biratu zen eta Miren betiko iluntasunean geratu zen.

MIRESMENA

Amaia Adot Zazpe (BATX 1.B)

Denek miresten zuten Addison; bere buruaz ziur zegoen eta inork ez zuen beldurrik sentitzen haren ondoan. Bere bi lagun minak desagertu zirenean, bilaketa handi bat antolatu zuen. Ni hurbildu nintzaion, betidanik maite nuelako eta bakarrik ikusi nuelako. Lagunak egin ginen, konfiantza sortu zen, eta gau batean bere etxera gonbidatu ninduen. Musu batek lasaitu ninduen.. baina bere gosea ez zen maitasuna. Nire mihia kendu eta jan zuen. Orduan ulertu nuen desagertuen egia. Istorio hau izan nuen inoiz kontatu, hitzik gabe geratu nintzelako.

AIPAMEN BEREZIAK

JAN DU

Charlie Feliu Rodríguez (4.A)

Esnatu naiz. Ametxgaizto ikaragarri batetik esnatu naiz. Zerbaitek nire pankreasea jaten hari zuen. Hutsune izugarri batek barrutik kontsumitzen zuen eta zuzenean nire bihotzera zihoan. Ezin nuen gelditu, dena jatera itxaron behar nuen. Eta bihotza kontsumitzear

zegoenean, hau lasterka zebilela altxatu naiz. Oraindik esna dago. Gaueko mahian dudana zukuaren trago bat hartu dut, baina ez dut bere gozotasuna dastatu. Kafea bezain mingotsua da. Nire gorputza arretaz ukitu dut nire pankreasearen kokapena bilatuz eta eskua han jarri dudanean, hutsune handi bat sentitu dut. Nire pankreasea jan du.

Oharra: Pankreasea gozotasuna digeritzen duen organoa da, bizitzaren gozotasuna. Dena mingotsu bihurtu da.

BIDAIA BAT BETIKO?

Nahia Gonzalez (BATX 1. A)

Atzo zure anaia etxera bueltatu behar zen bidaia batetik. Kotxea hartu eta aireportura abiatu zinen. Bidean irratia entzuten ari zinen eta entzun zenuen hegazkin istripu bat egon zela. Hori entzuterakoan arnas falta sentitu zenuen uste zenuelako zure anaiaren hegazkina zela. Istripuaren lekura ailegatu ez zenuen inon ikusi bere gorputza. Egun osoa pasa zenuen bilatzen eta gaur aurkitu duzu bizirik, baina zeharkatu zaitu eta orduan konturatu zara hilda zinela. Zure anaia ez zen hegazkinean igo berandu iritsi zelako eta zu gidatzen ari zinenean hegazkinaren hegoa gainean erori zitzaizun. Orain, nirekin etorri behar zara bakea aurkitzeko.

GAINONTZEKO LANAK

PILAZO DIABOLIKOA

Mati Gamba Ilundain (CBU 1)

Etxe abandonatu batean Uxue izeneko neska bihurri bat sartu zen. Etxe zahar horretan dena hautsita zegoen: platerak, edalontziak...Baina neska oso kuxkuxeroa zen eta etxeko leku batetik bestera abiatu zen. Komunera zihoan eta momentu batean soinu handi bat entzun zuen - Bross! . Momentu horretan atzera begiratu eta pilazo diaboliko hiltzaile bat ikusi zuen. Pilazoak eskuineko eskuan labana handi-handi bat zeukan, odolez beteta. Uxue beldur handiarekin etxetik atera nahi zuen, eta momentu horretik aurrera Uxue ez zen inoiz gehiago pasa etxe hartatik.

ETXE ABANDONATUTA

Sergi Cantos Esparza (CBU 2)

Behin batean, lagunekin joan ginen etxe abandonatu batera eta hor ikertu egin genuen. Eta nire laguna ekarri zuen mamu detektagailua bat eta honekin entzun genuen ume bat farra egiten. Momentu horretan korrika hasi ginen. Bat batean nire laguna oso arraroa zegoen, orduan galdetu genion ea zer gertatzen zitzaion. Oso beldurtuta ginen nire lagunak aurpegi arraroa zeukalako. Ezustean lehen entzunda genuen barre beldurgarri horrekin hasi zen farrezka. Korrika hasi ginen kotxeraino eta zuzenean etxera joan ginen erabat beldurtuta.

MAMUAK GAUENA

Aiala Capapay Miravalles (CBU 4)

Egun batean bi anaia eta beraien lengusu- lengusinak zeuden etxean bazkaltzen eta bat batean bururatu zizaien kalera joatea jolastera gaua zelarik.

Gurasoak esan zieten gaueko hamarretan etxean egoteko. Bi anaiak galdu ziren. Bere lehengusuak hauek bilatzen hasi ziren eta polizia deitu zuten. Beranduago aurkitu zituzten baso handi batean, larri zaurituta zeuden. Anbulantzian eraman zituzten bertan sendatzeko. ZIUan zeudelarik, bat batean munstro bat agertu zen ohe azpian esanez: "hospitalean zaudete!" - ahots beldurgarriaz.

MENDIAN GALDUTA

Markel Ilundain (1. C)

Mikel, Uharteko mutil bat, Izaga mendia igotzea erabaki zuen bere lagunekin, Ana eta Hugorekin. Hasieran dena ondo zihoan, baina bazkalostean Mikel galdu egin zen elurra hasi zenean. Bidean txakur bat aurkitu zuen, eta haren laguntzaz mendian gora jarraitu zuen. Gauak harrapatu zuenean kobazulo batean babestu zen. Hurrengo egunean, txakurrak lagundu zion berriro eta Anarekin elkartu zen. Biak txakurra jarraitzen hasi ziren eta azkenean Hugo ere aurkitu zuten. Sua egin eta berotu ondoren, menditik jaitsi ziren. Mikelen aitak jaso zituen eta, nahiz eta beldurra pasa, Mikel harro zegoen mendia igo izanaz.

LEIHOKO SOINUAK

Egoi Erviti (2. B)

Anttonen etxea basoaren ondoan zegoen. Egun batean, Antton bere logelera joaten zen lo egiteko asmoz, loak ia-ia arturik zuela soinu bat entzun zuen lehioan: tok tok tok. Anttonek

hori entzutean lehiotik begiratu zuen baina ezer ez zegoenez berriz bere ohean sartu egin zen. Baina 5 minutu geroago berriz ere entzun zuen: tok tok tok. Antton azkar lehiotik atera zen eta basorantz joan zen, gero basoan norbaiten ahotsa entzun zuen: Antton, Antton. Basora gehiago sartu zen eta bat batean argi bat ikusi zuen urrunean eta azkenean oartu zen bere lagunak zirela eta merendola moduko bat egiten hari zirela.

ZU NOR ZARA?

Aitana Cuadrado Rodriguez (BATX 1. A)

Manoliren etxean nago, beti nire leku segurua izan da, baina orain lekuz kanpo sentitzen naiz. Manolirekin hitz egiten egon naiz tartetxo batez eta nire laguntzarekin hainbat gauza eta nire izena birgogoratu ditu baino bere txikitako gertaerekin segitu da. Muxu bat ematera hurbildu naiz eta bat batean galdera batek inarrosi nau. Momentu horretan sentitua dudana beldurra betirako gogoratuko dut. "Zu nor zara?" galderari beti beldur izango naiz eta niri berdina gertatzen baldin bazait nire bilobak sentituko dutenaren beldur ere naiz.

NIRE INTIMITATE ZAPALDUA

Marina Azahara Saez Linares (BATX 1. A)

Begiak ireki nituen eta egunero bezala, klasera joatea erabaki nuen. Goiz hori arraroa izan zen, zerbait gertatuko zitzaidalaren sentsazioa neukan. Hala ere, nire barneko sinismenak alde batera utzi nituen, nire buruarengan konfiantza hartzen hasteko. Izan ere, nire bikotearengan konfiantza osoa neukan. Beraz, jantzi eta etxetik atera nintzen. Eskolara joateko bidea musika entzuten egin nuen, lasaitasun osoz. Hori guztiz aldatu zen eskolako sarrerara ailegatzean. Milaka begirada iltzatu zitzaizkidan nire barrenean. Nire gelakideak ez ziren nirekin eseri nahi. Konturatu nintzenean, nire bideo intimo guztiak sare guztietatik zabaltzen ari ziren. Hori izan zen klasera joan nintzen azken eguna.

BENETAZKO BELDURRA

Ibon Garcia-Fresca Zoroquiain (BATX 1. A)

Kuadrila bat asteburua etxez kanpo pasatzera joan dira. Etxe zahar batera joango dira, etxe hau basoan dago eta gauean ez dago ia argirik etxez kanpo. Etxearen barruan argia batzuetan bakarrik itzaltzen da eta bost minutu barru argia pizten da. Gauean ailegatu dira eta segidan ohera sartu dira. Goizean, kuadrila osoa lo dago baina, hogeit hamar minutu barru, ohia bat esnatu die, lagun guztiak sukaldara jaitsi dira eta jada, beste lagun bat dago, bakkarrik eta oso beldurtuta. Hozkailuan garagardorik ez dagoelako.

BIDE AMAIGABEA

Itxaso Alzuart (BATX 1.A)

Olatz eta bere lagunak ondoko herritik bueltan zetozen gaueko hamabiak zirenean. Olatzen etxea herritik kanpo zegoenez bere etxeko bidegurutzean lagunak agurtu eta etxeko bide amaigabe eta ilunerantz abiatu zen salbu iristeko gogoekin. Bidetik joaten zenean eskuinaldeko basoan argi batzuk ikusi zituen dirdirka baina inportantzia handirik eman gabe aurrera jarraitu zuen. Lasaitzean bat-batean zerbait sentitu zuen bere atzealdean eta abiadura azkartu zuen etxera irtsi arte. Etxera iristean dena iluna zegoen eta atea ixtean musika kutxa bat jotzen hasi zen etengabe. Olatz izututa bere gurasoen logelara abiatu zen eta iristean bere gurasoak lurrean odolez ikusi zituen. Olatzek ohiukatu eta lurrera erori zen.

AMAITZEN EZ DEN AHOTSA

Jasone Aguirre Gonzalez (BATX 1. A)

Maddi, 18 urteko gazte alaiak, bere familiarekin betidanik bizi izan zen. Ahizpa txiki bat zuen, norekin beti abestea gustuko zuen. Egun batean, bere familiarekin bidaia bat egin zuen musikal bat ikusteko, eta zoritxarrez, istripu bat izan zuten. Maddik bere bizitzarekin jarraitzen zuen bere familia bizirik zegoela pentsatuz, bere ahizpa abesten entzuten jarraitu zuen eta Maddik isiltzeko agindu zion, eta ez zionean kasurik egin, konturatu zen bere familia ez zegoela eta traumak eragin zituen bere ahizparen kantuak.

ZAIN

Libe Arguiñena Martin (BATX 1. A)

Ohitzen ari naiz, ia gustuz. Ohetik jaiki, ez dakit zer ordutan, maite dudana pertsona ikusi, janaria jaso eta egun osoa pasatu liburuak irakurtzen. Badakit niregatik egiten duela. Berak esaten didan bezala, egon behar dudana lekuan nago, ez diodalako inori ongi egiten. Egunak lasaiak izaten ari dira, ongi portatzen ari naiz, orduan ez dizkit nahi ez ditudan gauzak egiten. Baina noiz aterako naiz? Hilabeteak daramat nire aitak etxeko trasteroan giltzapetu zidanetik.

GAU XURIA

Naroa Zabaleta Zamora (BATX 1. C)

Gauean gau komunera joateko esnatu, norbait ondoan edukiko banu bezalako sentsazioarekin. Atea ireki eta parez pare xurizko emakume luze batekin topo egin nintzen. Nor ote zen? Nire imaginazioa izango al zen?

Garrantzia handirik eman gabe komunera sartu eta ura edan nuen. Agian, amets gaizto bat izango baitzen. Bitartean komunetik ateratzeko beldurrarekin nengoen; baina zorionez desagertu zen.

Egunak pasa eta gero ohartu nintzen nire amona zela, gau hartan hil zena.

AZKEN EGUNAK

Oihana Domeño (BATX 1.C)

Agurtzea ez zait sekula gustatu, bereziki betirako agur bat izan behar denean. Batzuetan ez dago beste aukerarik.

Beldurtuta bizi nintzen ea noiz iritsiko zen azken eguna, azken agurra. Bere azken eguna nire bukaera izango zen baita, eta banekien momentu hori iristeko gutxi falta zela.

Orain bera ez dagoela, ez dut mundua berdin ikusten, baino zerua inoiz baino ederragoa dago.

ZAIN

Argia Merina Armendariz (BATX 1. C)

Xake taula bat nire aurrean, karratu txuri eta beltzak, pieza bakoitza aurrera bota dezaket, edo diagonalean, baita alde batera, eta bestera ere, baina zerbait deberdina da, ezin dut atzera bota.

Berdurtuta nago, ez dut pieza oker mugitu nahi, are gehiago, beldur naiz ez ote naizen koldar aritu eta azkenean ez ote dudan ezer ez mugitu. Aukerak, helburuak, ametsak aldatzen dira pieza mugitzen dudan bakoitzean, aukerak bikoiztu daitezke baina, aldiz, murriztu daitezke.

Horregatik, beldurra daukat, nire erabakiak nire partida hondatu dezake, eta harekin ni.

AZKEN EGUNAK

Oihana Domeño (BATX 1. C)

Agurtzea ez zait sekula gustatu, bereziki betirako agur bat izan behar denean. Batzuetan ez dago beste aukerarik.

Beldurtuta bizi nintzen ea noiz iritsiko zen azken eguna, azken agurra. Bere azken eguna nire bukaera izango zen baita, eta banekien momentu hori iristeko gutxi falta zela. Orain bera ez dagoela, ez dut mundua berdin ikusten, baino zerua inoiz baino ederragoa dago.